

TXILIBITA FANFARREA

(Hernani)

TXILIBITA FANFARREA "Hernani" Musika Eskola Publikoko ikasleek osatzen dugun taldea gara, 2009.ean sortua. Gurean, xirula eta dultzainen tankerako euskal soinu tresna herrikoiek bat egiten dute akordeoi, saxofoi, bonbardino eta perkusioekin, txaranga berezia osatuz. Tankera honetako fanfarre edo musika taldeek arrakasta handia izan zuten 70-90 hamarkadatan Euskal Herriko dantza talde ezberdin eta askoren inguruan: Donostiako *Argia*, Iruñeko *Ortzadar* edo Pasaiko *Alkartasuna* erreferente garrantzitsu izan zaizkigu beste askoren artean (ezin ahaztu nafar hiriburuko *Xut fanfarrea*, noski).

Lehenago Donibane Garazin *Ramuntxo orkestrak* egiten zuen eran, festak alaitzeaz gainera, herri dantzei musika jartzea izan dute helburu nagusi era honetako fanfarreek, eta hots berezia, pertsonala ia, lortu izan dute halako soinu tresnen nahaste bitxia osatuta. Horrek erakarri gintuen haseratik, gure herri musika lantzeko formato ireki eta aldi berean egonkorra eskaintzen zigulako.

Jauzi edo muxikoak, plaza dantzak, sueltokoak eta kalejiran herria alaitzekoak dira nagusi gure erreperatorioan, beti euskal musika tradizionalari (dantzarakoari bereziki) lehen-tasuna emanaz.

Bordeleko inauterietan izan ginen 2012an, Italiako Bellarian 2015ean eta Mallorcako Muron 2016an, baina guretzat saio esanguratsuenak seguru asko bertagokoak dira, egunerokotasunean murgiltzen gaituztenak: Hernaniko festak, Antiguoko olentzeroa, Algortako *Hitzaren Dantza*, Itziarreko *Erromeria Eguna* edo Oiartzungo erromeriak.

Txilibita Ereñotzuko baserria da, Hernaniko ederrenetakoa. Doinuz betetako izena izateaz gainera, Txilibitakoa beti gertatu zaigu oso jende alaia, animoz betea eta animoa zabaltzen duena. Sanantoniotan txistulariak bertara diana jotzera inguratzen garenean, urtero, berehala hasten zaizkigu dantzan etxeko eskaratzean. Detalle txikiek betetzen dute gehiena bihotza.



TXILIBITA FANFARREA

Xirula: Idoia Ansorena eta Manex Zabaleta

Dultzaina: Aitor Ariztegi eta Mikel Ortiz

Akordeoa: Aloña Beraza eta Estebe

Atorrasagasti

Saxofoia: Imanol Garcia, Iker Jauregi eta

Mikel Prieto

Bonbardinoa: Iñaki Eguren

Perkusioa: Andoni Arzallus, Iñigo Arzallus,

Julen Beraza, Beñat Elizegi eta

Josu Macicior.

...eta zoritxarreko istripuan joan zitzaigun Erika, beti gure bihotzean.


TXILIBITA FANFARREA somos un grupo nacido en 2009 y formado por alumnos y alumnas de la Escuela Pública de Música "Hernani". En nuestro grupo, instrumentos populares vascos como las xirulas y las dulzainas se unen a acordeones, saxofones, bombardinos y percusión, formando una charanga especial. Grupos de fanfarres o de música de este tipo tuvieron un gran éxito en las décadas de los 70-90 en torno a grupos de danza diferentes y diversos de Euskal Herria: *Argia* de Donostia, *Ortzadar* de Pamplona o *Alkartasuna* de Pasaia, entre otros muchos, han sido para nosotros referentes importantes (sin olvidar la fanfarre *Xut* de la capital navarra, claro).

Tal y como hacía anteriormente la orquesta *Ramuntxo* en Donibane Garazi, este tipo de fanfarrias, además de alegrar las fiestas, han tenido como principal objetivo poner música a las danzas populares, consiguiendo un sonido especial, casi personal, con una mezcla tan curiosa de instrumentos. Eso nos atrajo desde el principio, porque nos ofrecía un formato abierto y a la vez estable para trabajar nuestra música popular.

Jauzis o *muxicos*, bailes de plaza, sueltos y pasacalles que animan al pueblo predominan en nuestro repertorio, dando siempre prioridad a la música popular vasca (especialmente a la de baile).

Estuvimos en los carnavales de Burdeos en 2012, en Bellaria (Italia) en 2015 y en Muro (Mallorca) en 2016, pero para nosotros las sesiones más significativas son probablemente locales, que nos sumergen en el día a día: las fiestas de Hernani, el olentzero del Antiguo, el *Hitzaren Dantza* de Algorta, el *Erromeria Eguna* de Itziar o las romerías de Oiartzun.

Txilibita es un caserío de Ereñotzu, uno de los más bellos de Hernani. Además de ser un nombre lleno de música, la de Txilibita siempre nos ha resultado ser gente muy alegre, llena de ánimo y que difunde el ánimo. Cuando en Sanantonios los txistularis nos acercamos hasta allí para tocar la diana, todos los años, enseguida nos empiezan a bailar en el zaguán del caserío. Son estos pequeños detalles los que más llenan el corazón.



TXILIBITA FANFARREA

Xirula: Idoia Ansorena y Manex Zabaleta

Dulzaina: Aitor Ariztegi y Mikel Ortiz

Acordeón: Aloña Beraza y Estebe Atorrasagasti

Saxofón: Imanol Garcia, Iker Jauregi y Mikel Prieto

Bombardino: Iñaki Eguren

Percusión: Andoni Arzallus, Iñigo Arzallus, Julen Beraza, Beñat Elizegi y Josu Macicior.

...y Erika, que se nos fue en un desafortunado accidente, siempre en nuestro corazón.

kontzertu honen laguntzaileak:



**ALTZIBARKO
JAI BATZORDEA**

